

# Sagardoak eta sagar-motak

Irakurri berri dut egunkari hone-tako kazetaria den Felix Ibargu-txiren artikulua bat Donostiako *Iru-txulo* aldizkarian. Oso gai interes-garria ikutzen zuen; alegia, sagar-dogileek zenbateraino dakiten zer sagar motekin egiten duten sagar-doa.

Nik ez dut sagardogintza hurbil-hurbiletik ezagutzen. Baina logi-koa dirudi Ibargutxik artikulua ho-rretan dioena: sagar asko ekartzen da Galizia, Asturias eta Frantzia aldetik, eta auskalo zenbateraino dakiten sagardogileek zer nolako sagar-motak erabiltzen dituzten.

Arazoa ez da sagardoa kanpotik ekarri beharra; kanpoko nolakoa den jakitea baizik: gazia, geza, ga-rratza, urtsua, lehorra, leloa... Ja-kiten zaila, seguru asko.

Gauzak horrela, zenbateraino kontrolatzen dute sagardogileek beren produktua, beren mama go-zo hori?

Egin liteke proba bat: joan sa-gardotegi batzuetara eta galdetu nagusiei ea zein sagar-motekin eginak diren beren sagardoak. Zenbatek erantzungo luke? Nik oraindik ez dut egunkarian horre-lako aitortzen inoiz ikusi.

Oraingoan, ezin dira inola ere ar-doa eta sagardoa konparatu. Eti-ketak ikusi besterik ez dago.

**Fermin Eizmendi**

(Donostia)